XEDAPEN OROKORRAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

853

EBAZPENA, 2012ko otsailaren 15ekoa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal sarean bildutako agente teknologikoentzako 2012. urteko gehieneko tarifak onartzen dituena.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen erregulazio-oinarriak eguneratzen dituen urriaren 1eko 221/2002 Dekretuaren helburua Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea antolatzea eta Sarean integratutako Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Teknologikoko Entitateen arteko koordinazioa bultzatzea da. Sare horretan integratzeak horretarako kreditaturiko Eragile Zientifiko-Teknologikoek Ikerketako, Garapeneko eta Berrikuntzako (I+G+B) ekintza-programa jakin batzuetan (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sustaturikoak) parte hartzea ahalbidetzen du.

Horrela, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean integratutako Eragile Zientifiko-Teknologikoei zuzenduta daude, besteak beste, honako hauek: funtsezko ikerketako laguntza-programa (Saiotek programa), Industriako sailburuaren Aginduaren bitartez araututako ikerketa estrategikoko laguntza-programa (Etortek programa) edo Zentro Teknologikoei eta beren Korporazio eta Itun Teknologikoei laguntzeko Emaitek programa.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean integratutako agente zientifiko-teknologikoen laguntzen programa arautzen duen Agindua. Saiotek programaren 8. artikuluan ezartzen denez, urtero, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordeak eragile teknologiko guztientzako orduko gehieneko tarifak onartzeko administrazio-ebazpena emango du, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Aipatutako lege-aginduak, eta oro har eta haiekin bat etorriz aplikatu beharreko gainerako xedapenak aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean integratutako Eragile Zientifiko-Teknologikoentzako 2012ko ekitaldiko orduko gehieneko tarifak onartzea.

Bigarrena.– Honako hauek izango dira Ikerketa Zentroetarako eta oinarrizko Ikerketako eta bikaintasuneko Ikerketa Zentroetarako, Unibertsitateetako Zentro, Sail, Atal, Institutu edo Bestelako Ikerketa Unitateetarako eta Ikerketa Zentroetarako 2012ko ekitaldiko orduko gehieneko tarifak:

Kategoria	Batez besteko tarifa
G1	92,32
G2	67,04
G3	51,75
G4	43,90
G5	9,46

Hirugarrena.– Ikerketa Zentro Sektorialentzako eta Ikerketako Erakunde Publikoentzako 2012ko ekitaldiko orduko gehieneko tarifak honako hauek izango dira:

Kategoria	Batez besteko tarifa
G1	90,72
G2	62,57
G3	41,46
G4	33,74
G5	9,46

Laugarrena.– I+Gko Unitateentzako (enpresa-arlokoak eta sanitarioak), Berrikuntzako Bitarteko Erakundeentzako, Parke Teknologikoentzako eta Enpresa eta Berrikuntza Zentroentzako 2012ko ekitaldiko orduko gehieneko tarifak honako hauek izango dira:

Kategoria	Batez besteko tarifa
G1	79,67
G2	56,02
G3	41,65
G4	31,48
G5	9,46

Bosgarrena.– Ziurtapen- erakunde eta laborategientzako 2012ko ekitaldiko orduko gehieneko tarifak honako hauek izango dira:

Kategoria	Batez besteko tarifa
G1	91,36
G2	57,52
G3	40,28
G4	34,17
G5	9,46

Seigarrena.– Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) edo administrazio publikoetakoak diren beste erakunde batzuen edo horien mendekoen 2012ko ekitaldiko orduko gehieneko tarifa 35,53 euro izango da langile propio edo plantillako langileentzat zeharkako gastuaren kontzeptu gisa eta ezin izango da inolaz ere langile horien zuzeneko kostua finantzatu. Diruz lagundutako proiektua egiteko berariaz kontratatutako langileentzako, zuzeneko kostua izango da tarifa.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko otsailaren 15a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.